

steilas

# Jubila zioak

## Nafarroa

2020ko martxoa



[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

## Aurkibidea

<b>1. MUFACE</b> .....	3
<b>1.1. Ohiko erretiroa</b> .....	3
<b>1.2. Borondatezko erretiro aurreratua</b> .....	4
<b>2. Kidegoz aldatu diren eta ondorioz MUFACEtik Gizarte Segurantzara pasatu diren funtzionarioak</b> .....	4
<b>3. Gizarte Segurantza</b> .....	4
<b>3.1. Ohiko erretiroa</b> .....	4
<b>3.2. Erretiro aurreratua</b> .....	5
<b>4. Erretiro partziala txandakako kontratuarekin</b> .....	6
<b>5. Amatasun osagarria</b> .....	6
<b>6. Erretiro eskaera</b> .....	7
<b>6.1. Klase pasiboetako borondatezko erretiro orokorra</b> .....	7
<b>6.2. Klase pasiboetako ohiko erretiroa</b> .....	7
<b>6.3. Nahitaezko erretiroa</b> .....	7
<b>7. Klase pasiboetako araubideko ezgaitasun erretiroa</b> .....	8
<b>8. Pentsioen zehaztasunak</b> .....	9
<b>8.1. Ezohiko Pentsioak</b> .....	9
<b>8.2. Alarguntza Pentsioak</b> .....	9
<b>8.3. Zurztasun Pentsioak</b> .....	9
<b>8.4. Gurasoen aldeko Pentsioak</b> .....	9
<b>9. Lana eta pentsioa bateratzea</b> .....	9
<b>10. 2019ko PFEZ atxikipen taula Nafarroan</b> .....	10
<b>11. Adi</b> .....	10
<b>12. Zer gertatzen da hutsik geratu den plazarekin?</b> .....	11
<b>13. Erretiro pentsioak: lorpen bat, borrokan jarraitzeko erronka bat</b> .....	11
<b>14. Helbide interesgarriak</b> .....	12
<b>15. Pentsioaren zenbatekoaren simulatzailea</b> .....	12

# 1. MUFACE

## 1.1. Ohiko erretiroa

### Erretiro pentsioa eskuratzeko baldintzak:

# Adinez, 65 urte izan; kotizatuta, berriz, 15 urte, gutxienez.

# Zerbitzu Soziala (1937tik 1978ra indarrean egon zena) eta Zerbitzu Militarra Gizarte Segurantzaren kotizatutako alditzat hartzen da, erretiroa jaso ahal izateko denbora minimotzat, bi kasuetan alde aurretik eskatu. Era berean, frankismo garaiko emakumeen zerbitzu soziala ere kontuan hartuko da erretiro aurreraturako.

# Nahitaezko erretiro aurreratuan, pentsioa %5an igoko da bi seme-alaba izanda, %10a hiru izanda eta %15a lau edo gehiago badira. Erretiro aurreratu borondatezkoa bada, ez da aurrekoa aplikatuko eta erretiro partzialan ere ez ohiko erretiro osora iritsi arte, behin erretiratzeko adinera iritsita.

### Pentsioaren kalkulua:

# Urtero, gobernu zentralak gehieneko pentsioa finkatzen du. 2017an, 36.033,20 eurotan ezarri da urteko muga (gordina), (hilabeteko 2.573,80 €).

Irakasleek oinarri erregulatuaren %100 kobratuko dute, betiere 35 urte kotizatu badituzte. Urte-kopuru hori kotizatu duten Bigarren Hezkuntzako irakasleek, berriz, hartzeko erregulatuaren gainditzen dute, horregatik, oinarri erregulatuaren kobratzeko, gaur egun nahikoa da 32 urte kotizatzea.

# Garbian, maisu-maistrek 1.845 euro inguruko 14 paga jasotzen dituzte eta BHkoek, berriz, 2.030ko 14 paga. Erretiroa hartzen den hilabetean soldata osoa kobratzen da, berdin du zein egunetan sartzen den indarrean erretiroa, eta hurrengo hilabetetik aurrera pentsioa kobratzen da.

Aurrekontuen legeak ebazten du urtero kidego bakoitzari dagokion hartzeko erregulatuaren (diru-kopuru gordinak):

2019ko Hartzeko erregulatuaren		Urtean	Hilabetean
A1 taldea	Bigarren hezkuntza	40.585,14 €	2.898,93 €
A2 taldea	PT eta LHko irakasleak	31.941,53 €	2.281,53 €

Zenbateko pentsioa kobratuko den jakiteko, hartzeko erregulatuaren horri portzentu bat ezartzen zaio, kotizatutako urteen arabera.

Kotizatu diren urteak	Oinarri erregulatuaren portzentajea	Kotizatu diren urteak	Oinarri erregulatuaren portzentajea	Kotizatu diren urteak	Oinarri erregulatuaren portzentajea
15	26,92	22	52,50	29	78,08
16	30,57	23	56,15	30	81,73
17	34,23	24	59,81	31	85,38
18	37,88	25	63,46	32	89,04
19	41,54	26	67,11	33	92,69
20	45,19	27	70,77	34	96,35
21	48,84	28	74,42	35	100

## Jardunaldi murriztua:

Lehen hezkuntzako irakasleek jardunaldi murriztuan lan egin badute urte bat baino gehiago jarraian (lanaldi laburragoek ez dute eraginik) edo urte sabbatiko bat hartu baldin badute, horri dagokion pentsioa murriztu egingo da, non eta ez duten 35 urtez lanaldi osoan lan egin. Bigarren Hezkuntzan egoera bestelakoa da, izan ere, gehienezko pentsioaren muga gaindituta dutenez, badago tarterik pentsioari kalterik ez egiteko.

## 1.2. Borondatezko erretiro aurreratua

### Baldintzak:

# Adinez, 60 urte edo gehiago izatea; kotizatuta, berriz, 30 urte, gutxienez.

# Zerbitzu Soziala (1937tik 1978ra indarrean egon zena) eta Zerbitzu Militarra Gizarte Segurantzari kotizatutako alditzat hartzen da, erretiroa jaso ahal izateko denbora minimotzat, bi kasuetan aldezturik eskatu.

Ohiko pentsioa bezala finkatzen da pentsio hori ere. Erretiro mota hori eta dagokion pentsioan ez dira aldatuko, Klase Pasiboen legea aldatzen ez bada.

2011n, gobernu zentralak, CCOO, UGTk eta CEOEk Akordio Sozial eta Ekonomikoa sinatu zuten, eta, horren arabera, MUFACEko langileen eta gainerako langileen erretiroa "parekatuko" dira, hots, araubide orokorrean, adina atzeratzen ari da, eta pentsioen zenbatekoa jaisten, hortaz, gauza bera egingo dute klase pasiboetan. Dena den, oraindik ez dute egin.

## 2. Kidegoz aldatu diren eta ondorioz MUFACetik Gizarte Segurantzara pasatu diren funtzionarioak

2010eko abenduaren 31 arte (2011 arte funtzionari praktikaldia atzeratu zutenen kasuan) mutualistak izandako funtzionarioek MUFACEko aurretiazko erretiroa har zezaketen. Aukera hori bat-batean eten zen, izan ere, Madrilgo gobernuak uko egin baitzion LOEren aldi baterako xedapen bat luzatzeari, eta ez baitzuen bestelako biderik bilatu aukera horri eusteko.

Orain, berriz, MUFACEn bidez erretiroa hartzeko aukera bakarra dago: lanaldi aktiboaren azken 5 urteetan jatorrizko kidegora itzultzea.

2018ko Aurrekontuei buruzko Legean sartutako salbuespenarekin, zeina Nafarroako Foru Erkidegoaren menpeko irakasle-kidegoetako karrerako funtzionarioei baitago zuzendua, zehazki, 13/2010 Errege Lege Dekretuaren 20. artikulua indarrean Gizarte Segurantzako edo aurreikuspeneko erregimenei atxikita geratu zirenei. Azken horiek borondatezko erretiroa hartu ahal izango dute eskaera egiteko unean, Estatuko Klase Pasiboen Erregimenera atxikitzeagatik. Salbuespen hau indarrean egongo da soilik beste aurrekontuak onartu arte.

## 3. Gizarte Segurantzza

### 3.1. Ohiko erretiroa

#### Erretiro pentsioa jasotzeko eskubidea edukitzeko baldintzak:

# Kotizatutako urteak, gutxienez: 15 urte, horietako 2 erretiroa hartu baino lehenagoko 15 urteen barruan.

#### # Jubilatzekeo adin orokorra:

- > 2017an 65 urterekin erretiratzeko, 36 urte eta 9 hilabete kotizatu behar izan dituzu, gutxienez. Hurrengo urteetan, gora egingo du gutxieneko kopuru horrek, mailaka: urte bakoitzeko, hiru hilabete gehiago. 2027an egonkortuko da: 38 urte eta 6 hilabete.
- > 65 urterekin erretiroa hartzeko kotizatu beharreko urteak betetzen ez badira, erretiroa hartzeko adinak gora egingo du, mailaka.

Jubilatzeko urtea	65 urterekin jubilatzekeo kotizatu beharreko urteak, gutxienez	Jubilatzeko adin orokorra
2020	37 urte	65 urte eta 10 hilabete
2021	37 urte eta 3 hilabete	66 urte
2022	37 urte eta 6 hilabete	66 urte eta 2 hilabete
2023	37 urte eta 9 hilabete	66 urte eta 4 hilabete
2024	38 urte	66 urte eta 6 hilabete
2025	38 urte eta 3 hilabete	66 urte eta 8 hilabete
2026	38 urte eta 6 hilabete	66 urte eta 10 hilabete
2027tik aurrera	38 urte eta 9 hilabete	67 urte

#### Pentsioaren kalkulua:

# 2012 arte, azken 15 urteetako kotizazioaren arabera kalkulaten zen oinarri erregulatzaila; orain, ordea, epe hori luzatu egiten da, urtero, eta 2022an etengo da, 25 urtera iritsita. Horrela kalkulaten da oinarri erregulatzaila: kotizazio oinarria bider 6/7. Urte horietako diru-sarrera gordinen batura da emaitza.

Urtea	Konputatu daitezkeen hilabeteak / zatitzailea	Konputatu daitezkeen urteak
2020	276 / 322	23
2021	288 / 336	24
2022	300 / 350	25

Gehieneko pentsioa MUFACEko berbera da. Erretiroa hartzen den egunera arte ordaintzen da soldata, eta, biharamunean, pentsioa kobratzen da.

#### Jardunaldi murriztua:

Jardunaldi murriztuak oinarri erregulatzaila txikiagotu dezake, baldin eta murrizketa hori jubilatutako aurreko urteetan gertatu bada.

Jardunaldi murriztuak kotizazioa ere txikiagotzen du, baina murrizketa hori orekatu egin daiteke baldin eta dagokion garaian kotizatu beharreko urteak baino urte gehiago kotizatu badira edo gehieneko kotizazioa gainditu bada.

### 3.2. Erretiro aurreratua

Ohiko erretiroa eskatzeko adina bete baino 2 urte lehenago eska daiteke erretiro aurreratua, betiere, 35 urte kotizatu badira, gutxienez, eta horietako 2 azken 15 urteen barruan egin badira. Hala egitekotan, %1,63 eta %2 arteko ehuneko murriztaileak ezarriko dira, ohiko adinera iristeko falta den hiruhileko bakoitzeko:

Kotizatu den denbora	Falta den hiruhileko bakoitzeko ehuneko murriztaileak
44 urte eta 6 hilabetetik gora	1,63%
41 urte eta 6 hilabetetik gora	1,75%
38 urte eta 6 hilabetetik gora	1,88%
35 urte edo gehiago	2,00%

Erretiro aurreratuko kasu guztietan, behin ehuneko murriztaileak ezarrita, pentsioa ezin da izan honen emaitza baino handiagoa: gehieneko pentsioa ken aurrerapenaren hiruhileko bakoitzeko edo hiruhilekoaren zati bakoitzeko %0,5; hau da, %2 urte bakoitzeko (hori garrantzitsua da bigarren hezkuntzako irakasleentzat, beren hartzeko erregulatzailerak gehieneko pentsioa baino handiagoa baita).

2018ko Aurrekontuei buruzko Legean sartutako salbuespenarekin, zeina Nafarroako Foru Erkidegoaren menpeko irakasle-kidegoetako karrerako funtzionarioei baitago zuzendua, zehazki, 13/2010 Errege Lege Dekretuaren 20. artikulua indarrean Gizarte Segurantzako edo aurreikuspeneko erregimenei atxikita geratu zirenei. Azken horiek borondatezko erretiroa hartu ahal izango dute eskaera egiteko unean, Estatuko Klase Pasiboen Erregimenera atxikitzeagatik. Salbuespen hau indarrean egongo da soilik beste aurrekontuak onartu arte.

#### 4. Erretiro partziala txandakako kontratuarekin

**Lan-kontratuak daukaten langileek** erretiro partziala har dezakete, eta beren jarduna murriztu, ohiko erretiroa hartzeko legezko adina bete arte. Erretiro partzialarekin batera, txandakako kontratu bat egiten zaio beste norbaiti, lanaldi murriztua osatze aldera, eta erretiro partzialak indarrean egindako adina denbora iraungo du txandakako kontratu horrek ere.

5/2013 Errege-Dekretuak aldatu eta gogortu egin zituen erretiro-eredu hori hartu ahal izateko baldintzak, hala ere, baimena ematen du lehenagoko baldintzak aplikatzeko langile batzuei:

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Sailean oso langile gutxi daude gisa horretako kontratu batekin lanean. Nortzuk dira? Lanbide Heziketako zentroetatik etorri zirenak eta bere garaian erabaki zutenak funtzionarioen barruan ez sartzea. Langile horiei, txandakako kontratu egiten zaie, eta beste pertsona bat kontratatzen da lanegunaren gainontzeko orduak betetzeko.

#### 5. Amatasun-osagarria

2016ko urtarrilaz geroztik, bi seme-alaba edo gehiago dauzkaten amen pentsioan handitu egingo dira, honako batez bestekoen arabera: bi seme-alaba dauzkatenen kasuan, %5; hiru dauzkatenen kasuan, %10, eta lau edo gehiago dauzkatenen kasuan, berriz, %15.

Osagarri berri hori jasotzeko, honako hauek hartuko dira kontuan: dagokion pentsioa hartzea eragin zuten gertakaria baino lehen jaio ziren edo adoptatu ziren seme-alabak.

Era berean, osagarria jasotzeko aukera izango da derrigorrezko erretiro aurreratuaren kasuan, ez ordea borondatez hartu bada erretiro aurreratua.

Erretiro partzialen kasuan, ez da osagarria aplikatuko harik eta erretiro arrunt osora iritsi arte, erretiratzeko adina beteta.

## 6. Jubilazio eskaera

### 6.1. Klase pasiboetako borondatezko erretiro orokorra

1. Idazkia Giza Baliabide zerbitzuan aurkeztu, nahi den jubilazio data zehaztuz (data baino hiru hilabete lehenago, nahiz eta eszedentzian egon).

### 6.2. Klase pasiboetako ohiko erretiroa

1. Erretirorako legezko adina bete baino sei hilabete lehenago, Administrazioak interesdunari inprimaki bat bidaliko dio, urteak betetzen dituen egunean bertan jubilatzea nahi duen adierazteko edo ikasturtea amaitzean jubilatzea nahi duen zehazteko.

Bi kasuetan ondorengo urratsak eman behar dira:

2. Giza Baliabide Zerbitzuak egiaztatuko du funtzionarioak behar diren baldintzak betetzen dituen eta "J" inprimakia igorriko dio non adieraziko diren, besteak beste, funtzionarioaren espediente pertsonalean ageri diren Administrazio Publikoentzat emandako zerbitzuak.

3. Bizitza aktiboaren uneren batean Gizarte Segurantzaren kotizatu bada, denbora horren zenbaketa eska daiteke, lan egindako urteetan eta esleigarria den portzentaian kontuan hartuko delarik.

4. Azkenik, Giza Baliabideen Zerbitzuak interesdunari eta eskuduntza duten erakundeei jubilazio ebazpena bidaltzen die, pentsioa abonatua izan dakion.

### 6.3. Nahitaezko erretiroa

Adinagatik nahitaez erretiratu behar diren pertsonak MUFACEtik jubilazio laguntza jasotzen dute, honetarako jubilatzea bezain laister, dagokion inprimakia eskatu behar dute.

Laguntza honen kopurua, maila bakoitzeko hiru urtekoen oinarritzko ordainsarien arteko batz bestekoa da.

# Estatuarentzat egindako zerbitzu urteak:

- > Edozein Administrazio Publikotan izandako zerbitzu aktiboa.
- > Zerbitzu bereziak.

# Gizarte Segurantzako edozein erregimen publiko.

Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrerako kotizazioa: Administrazio Publikoetatik kanpo lan egin den denbora, ondorengo baliokidetasunen arabera kalkulatu da:

Gizarte segurantzaren kotizatzen dutenen taldea	Kotizazioaren baliokidetasuna klase pasiboetan
1	A1.1
2	A1.2
3, 4, 5 y 8	C1
7 y 9	C2
6, 10, 11 y 12	E

# Jubilatuen PFEZa diru sarrera eta banakako ezaugarrien araberkoa da, eta %18 ingurukoa da (II. ERANSKINA).

## 7. Erretiroa, lanerako ezintasun osoagatik Klase Pasiboetako araubidean

### Ezgaitasun osoa:

- # Irakaskuntzarako, gutxienez %33ko ezgaitasuna.
- # 20 urte edo gehiago kotizatu badira: zerbitzu urteen eta kidegoaren hartzeko erregulazailearen arteko kalkuloa, oinarriaren %100a 35 urteak betetzen badira (kotizatuak eta kotizatzeke daudenak).
- # 20 urte kotizatu ez badira: %5eko murrizketa ezartzen da 20 urteak bete arte falta den urte bakoitzeko, 15 urte edo gutxiago kotizatu dutenentzako gehienez %25ko murrizketarekin.
- # Pentsio hauek tributatzen dute eta dagokion zergen atxikipenari lotuta daude.

### Ezgaitasun absolutua:

- # Edozein lanbidetarako, %65tik gorako ezgaitasuna.
- # Pentsioa, zerbitzu urteen eta kidegoaren hartzeko erregulazailearekin kalkulatzen da, 65 urteak arte falta dena kontuan hartuta.
- # 35 urte betetzen badira (kotizatuak eta kotizatzeke daudenak) hartzeko erregulazailearekin %100 jasotzen da.
- # Ez du tributatzen eta zergetatik salbuetsita dago.

### Baliaezintasun handia:

- # Oinarrizko behar fisikoetarako laguntza beharrezkoa denean.
- # Pentsioa absolutua bezalakoa da, hilabetearen %50eko osagarria gehituta.
- # Ez du tributatzen eta zergetatik salbuetsita dago.

Nafarroako Gobernuak ezgaitasun jubilazio poliza bat harpidetuta dauka, ondorengo kopurua duten kalteordainekin:

- # Ezgaitasun osoa: 23.471.15 euro.
- # Ezgaitasun absolutua: 29.000 euro.
- # Baliaezintasun handia: 49.000 euro.

65 urte bete ez badira, ezgaitasun egoera berrikusteko aukera dago. Ezgaitasun iraunkorreko pentsioak "jubilazio pentsioak" terminoa hartuko dute 65 urteak betetzean.

### Eskaera:

- # Eskaera Hezkuntza Departamentuan aurkeztu, dagokion mediku-dokumentazioa eramanez.
- # 18 hilabete bajaran egon ondoren Nafarroako GSINko Ezintasunak Balioesteko Taldeak, aldi baterako ezintasuna luzatu, alta eman edo ezgaitasuna iraunkortzat jotzen du.
- # Erabakiari errekurtsioa jarri eta bajaran jarraitzen ahal da.
- # Ezgaitasun iraunkorra ematen denean, erreabilitatuz gero lanera itzultzen ahal da.



## 8. Pentsioen zehaztasunak

### 8.1. Ez ohiko pentsioak

- > Ezgaitasuna zerbitzuan gertatutako istripuagatik edo zerbitzuaren ondorioagatik edo ekintza terroristagatik izan bada (RDL 671/1987, Art. 47.2).
- > Zerbitzua emateko ezintasun bezala kalkulatzen da, baina oinarri arautzaileak bikoiztuz.

### 8.2. Alarguntza pentsioa

- > Zendu den pertsona baino gehiago bizi denari, zendu den pertsonaren pentsioaren %50a dagokio, zendu arte zituen zerbitzu urteekin jubilatu bazen.
- > Jubilatzen dena bere pentsioa eta zendutako ezkontideagatik dagokion zatia jasotzen du, betiere gehieneko jubilaziora iritsi arte.
- > Pentsioentzat ezarritako amatasunaren osagarria ere jaso daiteke.

### 8.3. Zurztasun pentsioa

- > 21 urte baino gutxiago duten seme-alabak, edota adin hori baino helduagoak balira, lan egiteko ezintasuna dutenak, adin hori bete baino lehen edo pentsioaren eragilearen heriotza baino lehen.
- > Ikasten ari bada, dirua eskuratzea 24 urte arte atzera daiteke.

### 8.4. Gurasoen aldeko pentsioak

- > Gurasoentzako, betiere zendutako pertsonaren menpekotasun ekonomikoaren kasuan eta ezkontiderik, biziraulerik edo ondorengorik egon ezean.

## 9. Lana eta pentsioa bateratzea

2013ko martxoko Errege-Dekretuak lanean jarraitzeko baimena ematen du, hala ere, hori egin dezakete, soilik, jubilatzeke legeko adina daukateneke eta oinarri erregulatzailerean %100 lortu duteneke. Hots, pentsioa ziurtatuta duteneke erraztu egiten zaie lanean jarraitzea eta kotizaziotik salbuetsita geratzea.

## 10. EGZre atxikipen taulak Nafarroan 2019rako (%)

Urteko etekina	Seme alaba kopurua eta bestelako ondorengoak										
Eurotan	Seme-alabarik gabe	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10 edo gehiago
11.250 baino gehiago	4'0	2'0	0'0	0'0	0'0	0'0	0'0	0'0	0'0	0'0	0'0
12.750 baino gehiago	6'0	4'0	2'0	0'0	0'0	0'0	0'0	0'0	0'0	0'0	0'0
14.250 baino gehiago	8'0	6'0	4'0	2'0	0'0	0'0	0'0	0'0	0'0	0'0	0'0
16.750 baino gehiago	10'0	8'0	6'0	4'0	1'0	0'0	0'0	0'0	0'0	0'0	0'0
19.750 baino gehiago	12'0	11'0	9'0	7'0	6'0	4'0	0'0	0'0	0'0	0'0	0'0
23.250 baino gehiago	13'5	12'2	11'5	8'7	7'7	5'7	3'6	0'0	0'0	0'0	0'0
25.750 baino gehiago	14'6	13'3	12'6	9'9	9'2	7'8	5'8	3'8	0'8	0'0	0'0
28.250 baino gehiago	15'8	14'5	13'7	12'4	10'7	8'9	7'9	5'9	3'9	0'9	0'1
32.250 baino gehiago	17'0	16'0	15'0	13'6	12'5	10'8	10'0	8'0	7'0	5'0	2'0
35.750 baino gehiago	18'1	17'1	16'5	14'7	14'0	13'3	12'2	10'2	9'1	7'1	6'1
41.250 baino gehiago	20'0	19'0	18'3	16'9	16'2	15'5	13'7	12'4	11'3	10'2	9'2
48.000 baino gehiago	22'1	21'5	20'9	18'9	18'3	17'7	16'6	15'6	14'5	13'4	12'3
55.000 baino gehiago	24'1	23'5	23'0	22'0	21'5	20'9	19'8	18'7	17'7	16'6	15'0
62.000 baino gehiago	26'1	25'5	24'5	24'0	23'5	22'9	21'9	21'4	19'8	18'7	17'2
69.250 baino gehiago	28'3	27'7	27'0	26'6	25'5	25'0	24'4	22'9	21'8	20'3	19'3
75.250 baino gehiago	29'6	29'2	28'3	27'3	27'2	26'2	26'1	24'5	23'4	22'3	21'3
82.250 baino gehiago	30'8	30'5	30'0	29'4	29'0	28'3	27'7	26'6	25'6	24'5	23'9
94.750 baino gehiago	32'2	31'7	31'2	30'8	30'4	30'0	29'5	28'9	27'8	26'8	25'7
107.250 baino gehiago	33'5	33'0	32'6	32'3	32'0	31'5	31'0	30'0	29'5	28'5	28'0
120.000 baino gehiago	35'1	34'8	34'6	34'0	33'5	32'9	32'4	31'3	30'7	29'7	29'1
132.750 baino gehiago	36'2	36'0	35'8	35'0	34'5	33'9	33'4	32'8	32'0	31'0	30'0
146.000 baino gehiago	38'0	37'5	37'0	36'5	35'5	34'9	34'4	34'0	33'5	32'0	31'5
200.000 baino gehiago	40'0	39'8	39'4	39'0	38'5	38'0	37'5	35'5	34'5	33'7	33'0
280.000 baino gehiago	42'0	41'5	41'2	40'8	40'0	39'5	39'0	37'0	36'0	35'2	34'5
350.000 baino gehiago	43'0	42'9	42'8	42'5	41'5	41'0	40'5	38'5	37'5	36'7	36'0

## 11. Adi

Banan-banan aztertu behar dira erretiroa hartzeko askotariko aukerak, langilearen arabera, izan ere, jasoko den pentsioaren zenbatekoa eta erretiratzeko bidea langile bakoitzaren lan-bizitzaren arabera izango baita.

Informazio gehiago behar izanez gero gai horri edo beste gairen bati buruz (eskaera prozedurak, epeak, etab.) jarri harremanetan **STEILAS** sindikatuarekin, MUFACerekin 948 990 510 edo Ogasunaren Klase Pasibetako Unitatearekin 948 203 331.

## 12. Zer gertatzen da hutsik geratu den plazarekin?

### Ikasturte lektiboan zehar ematen diren erretiroak:

# Erretiro eskakizuna 3 hilabeteko epearekin eskatzen bada ere, Hezkuntza Departamentuak baja bat balitz bezala kudeatzen du, eta erretiroa gauzatu ez den arte ez da ordezkaturia izaten, badaezpada ere erretiratuko den pertsonak lanean jarraitzeko hautua egiten duen jakin arte.

### Ikasturte amaierako erretiroak:

# Ikasturtea amaitu eta langile aktibo bezala uda kobratzea erabakitzen dutenak:

> Bere erretiratzeko data irailaren 15a arte baldin bada, plaza hori ekaina edo iraileko LETan aterako da, bakantea bezala eta bi pertsona postu berean egonda.

### Erretiratutako pertsonak hartzen zituzten plaza organikoak:

# Plaza hauek ez dira erretiroagatik plantilla organikoetatik desagertzen, baizik eta plantillan jarrituko dute plaza bakante bezala.

# Plazak -1an badaude desagertu egiten dira (erretiroagatik edo ezabapenagatik / lekualdatze lehiaketan destino berria).

# Erretiroagatik abendua arte libre geratzen diren plazak, lekualdatze lehiaketako bakante definitiboetan kontuan hartzen dira.

## 13. Erretiro pentsioak: lorpen bat, borrokan jarraitzeko erronka bat

Pentsio publikoei esker estaltzen dira langileen beharrezko ekonomikoak, besteak beste, erretiroari esker, eta lorpen sozial horixe izugarri garrantzitsua izan da eta jendeak asko baloratu du.

**Oraingo sistema ustez ahula denez**, hainbat murrizketa ezarri dira, eta, gainera, kotizatze orduan eskakizun zorrotzagoak ipini (2011ko PSOE-CCOO-UGT- CEOE-CEPYME akordioa). Aurreikuspen-sistema pribatuak sustatu dira, nahiz eta horietako asko defizitarioak izan eta defizit hori ezkutatu; horretarako, sistema publikoaren ospea kaltetzeko kanpainak egin dira, eta zerga-sistemak ere laguntza eskaini du. Aurreikuspen-sistema pribatuak ondo baino hobeto datozkie kotizazio sozialak jaitsi nahi dituzten enpresa handiei eta diru-baliabide horiek kudeatu nahi dituzten banketxei.

**Pentsio publikoak solidarioak dira:** gutxieneko eta gehieneko mugak daude, ondorioz, aberastasuna birbanatzeko balio dute. Halako pentsioen kontra daudenean, berriz, pentsio pribatuak sustatzen dituzte, hots, kotizatutakoaren arabera pentsioa ematen dutenak. Lan partziala eta/edo etena egiten duten langileen kopurua gora doan honetan, sistema horietatik kanpo geratzen dira langile asko.

Laburbilduz, lan-bizitza amaitu osteko ongizatea **eskubide bat da, ez salgai bat**, eta, beraz, defenditu egin behar dugu, zerbitzu publikoak oro har defenditzen ditugunean.

STEILAS, 2020ko martxoa

## 14. Helbide interesgarriak

### Klase pasiboen kudeaketarako Zuzendaritza Orokorra

Klase pasiboen informazioa:

☎ 900 503 055 (Dohako telefonoa) • Asteleheneretik ostiralera 9:00tik 17:30ra  
<https://clasespasivas.gob.es> • [Clases.pasivas@sepg.minhap.es](mailto:Clases.pasivas@sepg.minhap.es)

Idatzizko informazioaren zerbitzua:

Dirección General de Costes de Personal y Pensiones Públicas  
Avda. del General Perón 38 • 28020 Madrid

### MUFACEko zerbitzu zentralak

Paseo de Juan XXIII 26 ☎ 912 739 500 • [www.muface.es](http://www.muface.es)

### Nafarroako MUFACE ordezkaria

Paulino Caballero Kalea 41, 1.solairua • 31003 Iruñea  
☎ 948 990 510 📠 948 246 502 • [navarra@muface.es](mailto:navarra@muface.es)

### Gizarte segurantzako diruzaintza nagusiaren egoitza elektronikoa

Bizitza Laborala, kotizazio oinarriak, kotizazio araubideak, etab.  
<https://sede.seg-social.gob.es>

### Nafarroako gizarte segurantzaren diruzaintza orokorra

Galizia etorbidea 5 • 31003 Iruñea (nafarroa) ☎ 948 242 512 📠 948 233 169  
[navarra.administración1.tgss@seg-social.es](mailto:navarra.administración1.tgss@seg-social.es)

### Nafarroako gobernuko Hezkuntza Departamentua

Santo Domingo Kalea 8 • 31001 Iruñea ☎ 848 426 616 ☎ 848 426 516

## 15. Pentsioaren zenbatekoaren simulatzailea

Simulatzaileira [esteka](#)



[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

Araba ☎ 945 141 104  
[araba@steilas.eus](mailto:araba@steilas.eus)

Bizkaia ☎ 944 100 298  
[bizkaia@steilas.eus](mailto:bizkaia@steilas.eus)

Gipuzkoa ☎ 943 466 000  
[gipuzkoa@steilas.eus](mailto:gipuzkoa@steilas.eus)

Nafarroa ☎ 948 212 355  
[nafarroa@steilas.eus](mailto:nafarroa@steilas.eus)